


A. HIPOLITO LARRAKOETXEAREN HIL OSTEKO OBRA GORENETAKOA

Egoki da eta bidezko gure gizon-emakume goresgarrien oroipena berreskuratzea eta haiei aitormen egitea, ondorengo belaunaldiek ere gogoan har ditzaten. A. Hipolito Larrakoe-txea horrelako gizon goresgarria genuen; ezaguna batez ere euskaltzale eta legelarien artean. Bi arlo horietan handia izan zen eta lorratz sakona utzi zuena. Horrez gainera, goi-karguak izan zituen Ordena barruan: Probintzial bi agintealditan: 1948-1951 eta 1957-1960 eta Jeneralaren kontseilaria 1961-1967. Karmeldarren eta beste Ordena batzuetako bisitari apostolikoa ere hainbat alditan izan zen, bai erlijioso gizonezkoena eta bai emakumezkoena.

Beste behin ere idatzi genuen hartaz *Karmel* aldizkarian. Irakurleari ezagun egingo zaio, beraz, haren biografia oro har eta haren lanak, euskarazkoak batez ere, *Bidegileak* bildumako liburuxkan ere bilduak daudenak. Horregatik, ez ditugu berriro idatziko hemen, obra berri honen harira datozenak izan ezik.

Aurrera egin orduko eman dezagun esku artean dugun obraren izenburua: *Jerónimo de la Madre de Dios Gracián Coadjutor de Santa Teresa*. Estudio histórico-jurídico. Izenburuaren behealdean hau jartzen du: Traducido del francés por Miguel Ángel Lizaso o.c.d. Originala frantsesez idatzia izan zen. *P. Jérôme de la Mère de Dieu Gratien. Coadjuteur de Ste Thérèse – Etude historique-juridique*. 592 orrialde ditu gaztelaniazko bertsioan lehen aldiz argia ikusi duen obra honek eta Gasteizko Ediciones El Carmen argitaletxean argitaratu da.



Hipolito Larrakoetxea (1892-1976)

Argitaratzailea eta sarreragilea Ildefonso Moriones, o.c.d. (2016). Liedenako nafar hau urte askoan Erroman Ordenak zuen Nazioarteko Ikastetxean irakasle izan zen; Ordenako historia zen honen irakasgaia eta horretan zen bereziki jantzia. Geroago, Teresianum unibertsitateko irakaskuntza utzi eta Jeneralaren Etxera bidali zuten eta han, azken urteetan, beste zeregin batzuen artean santuen kausetarako Postulatzaile zeregina izan zuen bere gain. Ildefonso Moriones da, 1976an, Jose Antonio Agirre Lehendakariak eta euskal diputatuek Erromara egindako bidaiaren berri zehatza ematen duten A. Hipolitoaren egunerokoa eta dokumentazioa bilduz, *Euzkadi y el*



A. Hipolitoren familia (gurasoak eta neba-arrebak)

Vaticano liburua idatzi zuena ere. Liburu horren orrialdeetan A. Hipolito Larrakoetxea ageri da Euskal Diputatuen eta Vatikanoren artean bitarteko egiten, bien arteko harreman onak lortzeko ahalegin betean, batzuen eta besteen presioak zirela-eta ondorioak nahi bezain onak izan ez baziren ere.

A. Hipolitoren lan originalak, frantsesez idatziak, geroago aipatuko ditugun arrazoiengatik, ez zuen inprimategiko argirik ikusi.

Obra honen historia

Euskal Diputatuek Erromara egindako bidaiaren harian, 1936an, Pizzardo monsinorearekin izan zuen bilerak asko markatu omen zuen A. Hipolitoren bizitza. Vatikanoko Estatu Idazkaritzak Hipolito Larrakoetxea Erromatik urruntzeko ahol-

kua eman zion Ordenako Jeneralari, eta 1935-1936ko ikasturtearen amaieran Begoñara itzuli zen.

Dena dela, 1936ko urrian, beraren segurtasunerako, Eusko Jaurlaritzak Euskal Herritik alde egiteko aholkua eman zion eta Frantziara joan zen eta han Ordenako ikastetxeetan eskolak emateari eta batez ere ikerketa juridiko-historikoei ekin zien.

Han zegoela, 1937an, *La Vie Spirituelle* aldizkarian A. Bruno Jesus Mariaren obrari buruzko iruzkin bat argitaratu zen. *Vie d'amour de Saint Jean de la Croix* zen obra hori (Paris, Desclée de Brouwer, 1936). Liburu berria, lehenago idatzia zuen San Joan Gurutzekoren biografia *Saint Jean de la Croix* (Paris, Plon, 1929, 522 or.) liburu handiaren laburpena zen, Jacques Maritainen hitzaurreaz argitara emana eta oso harrena ona izan zuena. Goian aipatutako aldizkarian bertan, 1930ean, A. Garrigou-Lagrangek biziki goratzen du. Obra horren balio handiak ukatu gabe, baina hartan zetozen gauza batzuekin bat ez zetorrela adieraziz, iruzkin edo ohar luze samar bat zetorren aipatutako aldizkarian. Euskarara itzuliz, hau zen ohar horrek zioena:

“Baina *Santu karmeldarraren* historia [san Joan Gurutzekoren], ezinbestean, A. Graciánen historiarekin batera doa orrialde askotan. Arlo horretan hainbat desadostasun agertu nahi nituzke. Graciáni buruz urte askoan, batez ere Madrileko Artxibo Historiko Nazionaleko 1063 eta 1064 paper-sortetan eta Vatikanokoetan egindako ikerketek ez digute uzten Santa Teresaren ikasle leiala izan zenaren pertsonaz eta ekintzaz hor ematen diren iritzi asko geure egiten. Gainera, liburu horren egileak A. Graciáni dagokion guztian alde txarra azpimarratzen duelako ustea geratu zaigu, hura kritikatzeko nahiz gaitzesteko aukera txiki nahiz handirik galdu gabe, eta geratzen den uste hori areagotuz doa liburuaren irakurketan aurrera egin ahala. A. Brunoren lumatik irteten den Gracián gaitzesga-

HIPÓLITO DE LA S. FAMILIA, O.C.D.

JERÓNIMO DE LA MADRE DE DIOS GRACIÁN
COADJUTOR DE SANTA TERESA

Estudio histórico-jurídico

Traducido del francés por
MIGUEL ÁNGEL LIZASO, O.C.D.

VITORIA
EDICIONES EL CARMEN
2016

rri ageri da gauza guztietan; hartaz ari diren orrialdeetan zehazketak eta hainbat zuzenketa egin beharra legoke. Uste dugu karmeldarren oraingo historialari handiaren, A. Silverioren, obren itzulpenak argi egingo digula irakurle frantziarroi, karmeldarren erreformaren hasieraz ikuspegi zabalago eta zehatzagoak emanez, haren lanetan Graciáni buruz ikerketa onak baitaude eta haren ondorioak A. Brunorenen ondoan nahiko bestelakoak baitira”. “Zuzenbideak eskatzen duena da hain laguntzaile ona birgaitzea eta zor zaion tokian jartzea”.

Iruzkin edo kritika horren egilea Châlons-ko komentuko moja karmeldar oinuts bat zen, Ama Maria San Joserena. Moja honek hainbat urte zeramatzan A. Gracián aztertzen, eta hari buruzko dokumentu originalen fotokopiak, batez ere Simancas-en eta Vatikanoko artxiboan gordetzen direnak, lortu zituen.

A. Hipolitok hau dio argitara gabeko bere oharretako batean: “A. Brunori, bere liburuari buruzko hitz gozoak entzute-ra eta irakurtzera ohitua egonik, min handia eman zion kritika honek, Graciáni buruzko epaian egia-rik eta zuzenbiderik eza egozten baitzion. Kritika honen egilea bere izen-deituren hasierako letretan ezkututzen zen (E.M.B.), baina ezin zen gutxietsi bertako orrialdeetan idazteko onartua izan zen aldizkariaren aurrean. [A. Brunok] miresten zuen maisuagana, A. Zimmermanengana, jo zuen eta kritika horren berri eman. Honek berehala erantzun zion hiru gutunetan, kritikak gehien estimatzen zuen tokian jotzen zuelako, beraren maisutzako gaitasun eta zintzotasuna zalantzan jarriz. Haren zintzotasunean sinesten dugu, ez hainbeste haren gaitasunean”.

Hipolito Larrakoetxeak bere oharretan beste hau ere badio: “Maisuaren gutunek ez zuten guztiz ase A. Bruno. Mojatxoak jarritako eta bene-benetako dokumentuetan ongi oinarritutako hainbeste objekziori ez zieten erantzuten. Egiaren bila bere zintzotasuna eta bere eskubidea frogatzen zuenari zor zaiona


aitortzeko borondatea aldarrikatuz, buruan sarturik zuen Erreforma teresiarraren hasierak sakonkiago aztertu beharko zituela bere liburu eztabaidatuaren edizio berri batean.

Ikerketa-lan berri horretako gertaera bat izan zen nire esku-hartzea. A. Bruno bera izan zen nigan pentsatu zuena, une hartan Frantzian bizi bainintzen, eta zuzenbide kanonikoan aditua eta eztabaida horretatik kanpo nengoena izanik, epai zuzena eman nezan berak mojarakin zuen auzian. Asmo horrekin dei egin zidan berarekin eta mojarakin bilera bat izateko Châlons-ko monasterioko mintzalekuan, hango komentukoa baitzen Maria San Joserena. Bilera 1938ko negu gorrian izan zen.

Aitortu behar dut historia arloan nire prestakuntza teknikoa hutsaren hurrengoa zela, ez, ordea, nire historiarako zaletasuna. Lehenengo karmeldar oinutsek izan zituzten diferentzietan nire ezjakintasuna erabatekoa zela esan daiteke. Ez nekien ezer Doria eta Graciánen arteko diferentzietan, ezta ez zitzaidan artean hartaz interesik ere sortu. Uste nuen epaia [A. Graciánen aurkakoa] ongi emana izango zela. Izan ere, Ordenako hoberenen artean hautaturiko zazpi epailek, gainera Ordenatik kanpoko beste bi nagusi aholku emaile zituztela, emandako epaia zuzentzat jotzen nuen besterik gabe. Egiaz aitortzen dut neure erabateko alderdikeriarik eza Graciánen eta Doriaren arteko auzian, baita A. Rubeo txit agurgarriaren eta karmeldar oinutsen arteko auzian ere.


A. Brunok eta ahizpa Maria San Joserenak historiako zenbait gauza argitu zizkidaten eta batak eta besteak gai horretaz bildurik zuten dokumentazioa nire esku utzi ondoren, agur egin genion elkarri nor bere kontura gaia aztertzen jarraitzeko, baina posta bidez harreman beharrezkoak izateari utzi gabe”.

A. Hipolitok, bada, Graciánek Rubeorekin eta Doriarekin zituen auziak ikuspegi juridikotik aztertzeko eta, epaile inpar-



Zuzenbide kanonikoaren iruzkina dakarren eskuizkribua

tzial legez, epaia emateko agindua jaso zuen 1938an. Horretarako aukera-aukerakoa zen. 46 urte zituen eta eskarmentu handia zuzenbide kanonikoaren irakaskuntzan; horrez gainera, formazio juridiko goi-mailakoa, eta, Frantzian erbesteraturik zegoela gauzak kontuz eta egoki aztertzeo astia ere bazuen. Eskura eman zioten argitara gabeko dokumentazioa eta A. Silveriok 1937an argitaratutako *Historia del Carmen Descalzo* obra handiaren VI. liburukia eta A. Zimmermanek 1936an argitaratutako bere *Regesta Joannis Baptistae Rubei* arreta handiz azertu ondoren, 1945eko urriaren 3an amaitutzat jo zuen makinaz idatzirik 400 bat orrialde hartzen zituen bere lana. Izenburua, gorago jarri duguna: *P. Jérôme de la Mère de Dieu*



A. Hipolitok euskarara itzulitako Zuzenbide Kanonikoa

Gratien. Coadjuteur de Ste Thérèse – Etude historique-juridique. Ahizpa Maria San Joserenak eta emakume adiskide baten, literaturan jantzia zenak, ikusi eta orraztu zuten estilo aldetik eta A. Hipolitok aurkeztu zuen idazkia inprimatzeko prest.

Ikerketaren ondorioa Egilearentzat ezustekoa izan bazen, berberak aitortzen duenez, ezusteko handiagoa izan zen A. Bruno Jesus Mariarena eta Eliseo Natibitatekoa Parisko Pro-

bintzialarentzat, A. Hipolitok emandako epaia irakurri zutenean. Biek uste zuten liburua kaltegarri gerta daitekeela Ordenako tradizio espiritualerako, batez ere, beraien iritziz, Graciáni gehiegizko garrantzia ematen zitzaiolako, San Joan Gurutzekoren protagonismoa gutxituz, eta apostolutzari gehiegizko garrantzia ematen zitzaiolako.

Hala ere, zenbait zuzenketa egin ondoren, ez zutela eragoztziko haren argitalpena adierazi zuten. Kontua da ez zutela argitaratu eta obra honen ordezt *Études Carmélitaines* (1946) aldizkarian agertu zutela 70 orrialdeko laburpen txiki bat izenburu honekin: *Le conflit Doria – Gratien. Étude historique-juridique*. A. Brunoren sarrerako ohar batez, Ordenako tradiziozko pentsaeran A. Hipolitoren lanak izan zezakeen eragina nolabait leuntzeko ezarria.

A. Maria Eugeniok hitzeman zuen, 1947an, sarrera idatziko zuela obra osoaren ediziorako, baina 1949an oraindik ez zuen emandako hitza bete. Horregatik Maria San Joserenak pertsonalki ekin behar izan zion. 123.000 libera zen aurrekontua 500 aleko argitalpena egiteko. Ameriketako hainbat monasteriotara idatzi zuen laguntza eske eta 1951erako 70.000 libera lortu zituen. Une horretan Ordenako Jenerala, A. Silverio, igaro zen handik eta Maria San Joserenak bere asmoen berri eman zion, hark lagunduko ziolakoan, baina erantzuna kontrakoa izan zen: Ameriketako monasterioei diru-eske ez jarduteko, po-break zirela-eta... Berak, sei urte haietan alde guztietan oztopoak baino ez zituela aurkitu kontuan izanik, Ordenako nagusiek une hartan ez zutela nahi ikerketa-lan haren emaitza zabal zedin ulertu zuen.

Gaztelaniazko argitalpena prestatu duenak, Ildefonso Moriesek, hau dio liburuaren sarreran:

“Gaur, liburua amaitu zenetik 70 urte igaro direnean, 50 urte Vatikanoko II. Kontzilioak geure jatorriaren ezagutzan sakontzera dei egin zigunetik, eta 43 urte *Institutum Historicum*

Teresianum-ek *Documenta primigenia*-ren lehenengo liburu-
kia argitaratu zuenetik, A. Hipolitoren lan honek, zuzeneko
dokumentuetan oinarriturik eta zalantzarik gabeko gaitasunez
burututako lan honek, bere balio historiko osoa izanez jarrai-
tzen du”. Horregatik, gaztelaniazko irakurleek ere hartaz onu-
ra ateratzeko modua egitearren, urte askoan Monakon bizi
den beste karmeldar nafar batengana, Migel Anjel Lizasoren-
gana, jo zuen itzulpena egin zezan.

Hurrengo lerroetan, A. Hipolitok, 1967ko maiatzaren 24an,
Ordenako *Kapitulu berezian* egindako hitzaldiaren bi zatitxo
aipatzen dizkigu hari-harira datozenak. Honela dio Vatikanoko II. Kontzilioa dela-eta:

“Guri eman zaigun zeregina, hau da, gure Ordenaren be-
netako espiritua berrezartzea santa Teresa Jesusena gure Ama
eta Fundatzailearen asmoen arabera, haren Jainkoaganako eta
arimen salbamenerako maitasun bero eta gartsua berritzea, eta
gure legeak eraberritzea eta geure garaiko eskakizunetara
egokitzea, etengabe argitu beharra da Ordena zertarako den
zehazki eta zorrozki ezaguturik, Fundatzaileak berak nahi
zuen eta Elizak onartu zuena kontuan hartuz”.

Bestalde, Doriaren espiritu eremutarrak Ordenan utzitako
lorratzari buruz, hau dio:

“Orain hitz batzuk esango ditut, gure artean betikoa eta
oso eztabaidatua izan den gai bati buruz, hau da, praktikan
nola batera daitekeen kontenplaziozko bizitza apostolutza-
ekintzarekin. Ez eskandalizatu, arren, esango dizuedanagatik:
auzi hau sobera dagoena, alferrikakoa ez ezik, kaltegarria ere
badela”.

Eta berehala argitzen du esandako hori honela:

“Auzi hori Ordenaren bakerako kaltegarria dela diot berri-
ro. Horren aldekoak apostolutza-ekintza Karmeldar Oinutsa-
rentzat txarra balitz bezala mintzo dira, premia triste bategatik

ezinbestean jasan beharrekotzat, baina ahal den guztian saihestu beharrekotzat. Eta hain dute hori sakon buruan sarturik, non kontrakoa uste dutenak gaitzesten eta pertsegitzen baitituzte, heretikoak balira bezala. Hori gure santa Fundatzailearen iritzi guztiz ziurraren aurka doa bete-betean. Baina iritzi horren aldekoek erraz gainditzen duten oztopoa da, santa Teresari, fraide Karmeldar Oinutsei dagokionez, Fundatzaile titulua ukatuz. Haien iritiziz, fraideen benetako fundatzailea lehen aldian aita Nikolas Jesus Mariarena Doria zen; geroagoko aldian, berriz, gure Aita san Joan Gurutzeko; baina honen historia faltsutu egiten dute, Ordenako lehen semea guztion Amaren kontra jartzeraino” (...).

“Argi eta garbi erakutsi zuen gure santa Fundatzaileak ez zegoela berez bateraezintasunik Karmeldar Oinuts edo Teresiarren bokazioaren eta lagun-hurkoaren alde egiten den apostolutza-ekintzaren artean; horrela, aurrez inola ere ez zion uko egin, bere alaben komentuan neska txikiak hartzeko leku bat izateari hauei kristau-hezkuntza eman ahal izateko, lehenbizi Medinan egin zuenez eta geroago Valladoliden. Bietan ere gauzak ez ziren gero aurrera joan kanpoko beste arrazoiengatik”.

A. Graciánen asmoak Santa Teresaren Erreformaren garapenean

A. Hipolitok bere obraren hitzaurrean dio A. Jeronimo Gracián izan zela Santa Teresak Espainian burututako Karmeldarren Ordenaren Erreforma barruan protagonistarik garrantzitsuena, Erreforma hori giza talde legez sendotasuna hartuz zihuan bitartean (1575-1585). Bera izan zen Erreforma berria mugimendu sendo eta ongi antolatu bihur zedin eragile erabakigarria, denboraren joan-etorrian, bere sorleku izan zuen antzinako Karmeldarren Ordena ere sendotasun eta zabaltasunean gainditzera.

Lehenengotik aurreikusi eta nahi izan zuen A. Graciánek garapen handi hori. Erreforma jaioberria Ordena berri, edota gutxienez, mundu osoan zehar zabalduko zen Kongregazio burujabe egitea zuen helburu.

Horretan datza, ziur asko, Graciánen handitasuna. Santa Teresak berak ere ez zuen halakorik amesten, A. Graciánek Beasen izandako lehenengo elkarrizketan horretaz zituen pentsamendu eta proiektuak azaldu zizkion arte. Horregatik, pozez zorutzen geratu zen gure Santa, bere asmorik loratuenak ere gainditzen zituen semearekin aurkitzean.

Grazianen beste merezimenduetako bat hau izan zen: aurrez garbi ikustea Erreforma berria nolakoa izango zen eta nolako antolaketa juridikoa izan behar zuen beti halaxe irauteko eta, era berean, leku eta garai desberdinetara ongi moldatzeko. Horregatik, esentzian edo oinarrietan tinko irauteko legeria behar zuen eta xehetasunetan malgua izango zena.

Graciánen asmoak zabalegiak, handiegiak ziren Ordenaren zuzenbide idatziak Erreformari seinalatutako esparru estuan gauzatu ahal izateko. Baina berak, egitekoa ona zela buruan sarturik, ez zuen duda-mударik izan Ordenako legeriak jar-tzen zizkion oztopoen aurrean. Aurrera jo izan zuen beti, gizakiak eta legeak, errealitatearen aurrean, amore eman behar-reen izateraino.

Ordenako Jeneralarekin eta honen inguruko buruekin talka egitea ezin saihestuzkoa izango zitzaion, haiek legeri estu eta zorrotza ezartzen baitzioten Erreformari, baina proiektuaren lehen parte aurrera ateratzea lortu zuen Santa Teresa, Erre-gea bera eta Erreformako gehienak oso-osoan bere alde zituelako. Bigarren parte, hau da, Erreforma nazio guztietara za-balduko zen Ordena bihurtzea, nekagarriago gertatu zitzaion.

Egia da, horri dagokionean ere, Graciánen ideiak gailendu egin zirela. Historiak hala diosku; baina garaipena geldia, neketsua izan zen eta egilea haren biktima bihurtu zen.

Beti izan zuen Ama Teresaren laguntza, baita Erreformako erlijioso askorena ere. Baina beste askok kanpotik eta etxe barrutik bertatik kontra handia egin zioten eta, maltzurki mugituz, Erregearen laguntza gal zezala egin zuten eta, Erregeaz beraz baliatuz, Aulki Santurako ateak A. Graciáni ixtea lortu zuten. Horrela, A. Gracián kondenatua eta berak fundatzen lagundu zuen Ordenatik kanpora egotzia izan zen, eta berak, lege zaharreko karmeldarrendandik bereiziz Karmeldar Oinutsen Ordena berria sortzen Santa Teresarekin batera hainbesteko ahalegina egin ondoren, berriro haien atera jo beharra izan zuen karitatez aterpea eman ziezaioten.

Ikerketaren ondorioak

A. Hipolitok dio, bere eskuetan utzitako iturriak astiro eta kontuz aztertu beharra izan zuela. Argitaratutako eta bibliografiazko oharrean aipatzen dituen iturriez gainera, Madrileko artxiboetako dokumentu argitaragabeko ugari izan zituela eta horiek guztiak nahiko zirela auzitan zeuden gauza guztiez behin betiko epaia emateko.

Argi eta garbi aitortzen du, lanari ekitean irudikatzen zuenaz oso bestelakoa izan zela azken epaia. Lanaren hasieran uste zuela, auzitan zeuden gauza askotan A. Gracián kondenatu beharra izango zuela. Izan ere, karmeldar erlijioso gehien artean uste hau zegoen zabaldurik: Graciánek desitxuratu egin zuela Karmengo Erreformagilearen, Santa Teresaren, pentsamendua; eta batez ere San Joan Gurutzekoren pentsamenduaren kontrakoa zela A. Gracián. A. Hipolitok dio, bera ere uste horretakoa zela ikerketari ekin zionean.

Beste hau ere badio A. Hipolitok, aurreiritzi hori gainditzea asko kosta zitzaiola. Esku artean zituen dokumentuek A. Graciánen errugabetasuna frogatzen zutela, baina ez zuela hori onartu nahi, kontrako froga guztiak agortu arte. “Zehatz-mehatz jakin nahi genuen –dio– Doriak Graciánen aurka bil-

durik zuen guztia. Horretarako, A. Silveriogana jo genuen, Graciánen aurkako prozesuetako aktak gure esku jar zitzala eskatuz, bestela, prozesu horien aktarik gabe, behin betiko epairik emateko moduan izango ez ginelako kezka genuela. A. Silveriok erantzun zidan, prozesuen akta horiek aurkitzeko ahaleginak alferrik izan zirela; beraz, suntsituak izango zirela. Baina, bere iritziz, haiek galdu izanak ez zuela eragozten egia-
ren berme osoaz epaitu ahal izatea, alde batetik Graciánen beraren adierazpenak sinesgarri direlako, beti erakutsi baitzuen guztiz egiazalea zela, eta, bestetik, beraren garaiko lekuko-
koen adierazpen ugari ditugulako, hauen artean Graciánen aurkakoenak, funtsean Graciánen beraren adierazpenekin bat zetozenak.

Esperientziak esaten digu A. Silverio guztiz zuzen zebilela iritzi hori ematean. Lanean aurrera egin eta gertakariei eta dokumentuei hitz egiten utzi ahala, iritziz aldatuz joan gara, Graciánen guztizko errugabetasun juridiko eta moralaz ziur-ziur egotera. (...) Probidentziaren asmoen arabera, Gracián izan zen berriro ere Erreforma salbatu zuena.

Graciánen absoluzioak beronen pertsegitzaile Doriaren kondena esan nahi du era berean. Eta absoluzioa murrizketarik gabea denez gero, kondenak ere aringarrik gabea izan behar. Ohartzen gara geure epaiaren zorrotzaz, baina aitortu behar dugu ez dugula Doria kondenatzeko inolako asmorik izan, baina lan juridikoa burutu dugunez gero, nahitaez eman behar alde batekoak eta bestekoak ekarritako frogen araberrako sententzia. Doriaren alde atera daitekeen zirkunstantzia aringarri bakarra beraren oreka psikikoaz izan dezakegun zalantza izan daiteke”.


Azken hitzak

Lan honetan bi gizon handiren gorazarrea egin nahi izan dugu: Errugabe gaitzetsia, kondenatua eta Ordenatik egotzia

izan zen A. Graciánena eta A. Hipolito Larrakoetxearena. Nahiz eta kaleko jendearentzat gaia eta pertsonaiak ezezagunak izan, atseginez irakurtzen den liburua da; batez ere legelarentzat oso interesgarria. Hemen azal-azaletik ibili gara, gehienbat argitaratzailearen aurkezpenean eta autorearen hitzaurrean esaten dena kontuan izanik eta barruko korapiloetan asko sartu gabe.

Hona zeanuritar karmeldarraren lan guztiz aipagarria.

Luis Baraiazarra Txertudi



1936an EAJ-PNV-ko diputatuek Erromara egindako bidaiaren berri ematen du A. Hipolitok



1929an argitaratu zen Grimm Anayen Ipuñak liburua, A. Hipolitok itzulia